

EUSKARAZKO EDIZIOAZ

Eskuetan duzun liburua 2020. urtean argitaratu zen ingelesez. Aditu askok goraipatu dute liburua (Noam Chomsky, Avi Shlaim eta Carne Ross-ek esaterako) eta erreferentziatzko liburu bihurtu da unibertsitateko irakasle askorentzat. Arrakasta handia izan du Estatu Batuetan eta Erresuma Batuan eta horren ondorioz itzulia izan da arabierara, gaztelaniara, portugesea eta beste hizkuntza batzuetara.

Palestinako historiaz euskarazko libururik ez zegoela ikusita, eta liburuaren ezaugarriak kontuan izanda, UEUK erabaki zuen liburua itzultzea. Itzulpena 2023ko ekainean abiatu zen, urriaren 7tik aurrera bizitako basakeria baino lehen, eta azkartu da aipatutako data horretatik. Argitaratu baino lehen egileari eskatu genion ea posible zuen azken zazpi hiletako gertaeren inguruan ekarpenen bat gehitzea, eta eskuzabalki amaierako «Azken Hitza» bidali digu liburuan eransteke.

Itzulpena jatorrizko ediziotik egin da (*The Hundred Years' War on Palestine: A History of Settler Colonialism and Resistance, 1917–2017*), baina gaztelaniazko bertsioa ere erabili da hainbat zalantza argitzeko (*Palestina: Cien Años de Colonialismo y Resistencia*, Capitán Swing arg., Francisco J. Ramos Mena itzul.). Itzulpenerako oso baliagarriak izan zaizkigu Palestinaren inguruan argitaratutako liburuak (Imanol Murua Uriaren *Palestina Zauritua*, Perry Andersonen *Palestinaren Okupazioaz eta Kolonizazioaz* eta Joe Saccoren *Palestina* komikia, besteak beste) eta egunkarietan argitaratutako testuak (*Euskaldunon Egunkaria*, *Berria* eta *Argia* nagusiki). Argitalpen zientifikoen aldetik aipagarria da Endika Rodriguezek *Kondaira* aldizkarian argitaratutako *Palestinaren Historiara Hurbilketa: Palestinar Britainiar Agintaldia Abiapuntu moduan Demografiaren Ikuspuntutik* izeneko artikulua.

Bilbo, 2024ko maiatzaren 6a

SARRERA

1990eko hamarkadaren hasieran Jerusalemen bizi izan nintzen zenbait urtetan, hainbat hilabetez aldi bakoitzean, bertako familia zaharrenetako batzuen liburutegi pribatuetan, baita nire senideenean ere, ikertzen. Nire emaztearekin eta seme-alabekin Khalidi familiaren *waqf* (dotazio erlijioso) bateko etxebizitza batean geratu nintzen, Hiri Zahar zatatatsu eta gainezkatuaren bihotzean bertan. Eraikin horren teilatutik arkitektura islamiar goiztiarraren bi maisulan handienetakoak ikus zitezkeen: urrezko Arroka Kupula distiratsua hirurehun metro pasatxotara zegoen, Meskiten Zelaigunean. Harago al-Aksa meskitaren zilar grisezko kupula txikia zegoen, Olibondoen mendia atzealdean duela¹. Beste norabideetan Alde Zaharreko elizak eta sinagogak ikus zitezkeen.

Bab al-Silsila kaletik apur bat behera Khalidi Liburutegiaren eraikin nagusia zegoen, 1899an gure aitonak, Hajj Raghīb al-Khalidik, bere ama Khadija al-Khalidiren legatuaren bidez sortu zuen liburutegiarena hain zuzen². Bibliotekak mila eta berrehun eskuizkribu baino gehiago biltzen ditu, arabieraz gehienak (batzuk persieraz eta otomandar turkieraz), zaharrena XI. mendearen hasierakoa³. XIX. mendeko bi mila arabiar liburu eta hainbat familia-dokumentu bildurik, oraindik jatorrizko jabeen esku dagoen Palestinako zabalenetakoa da⁴.

Nire egonaldiaren garaian liburutegiaren egitura nagusia, XIII. mendearen ingurukoa dena, zaharberritzen ari ziren, eta ondorioz edukiak kartoizko kaxa handietan gordeta zeuden aldi baterako, gure apartamentuarekin eskailera estu baten bidez loturiko Mameluko estiloko eraikin batean. Urtebete baino gehiago eman nuen kutxa horien artean, Khalidi familiaren —tartean gure osaba-herenaitona Yusuf Diya al-Din Pasha al-Khalidirenak—⁵ liburu, dokumentu eta gutun hautsez josien artean. Osaba-herenaitonaren paperen bidez mundu zabaleko gizon bat aurkitu nuen, Jerusalem, Maltan, Istanbulen

eta Vienan hezia, erlijio konparatiboan, eta batez ere judaismoan, oso interesatua zegoena; eta gai horietaz eta bestelakoez Europako hizkuntzetan idatzitako liburuen jabe zena.

Jerusalemgo jakintsu islamiarren eta zuzenbide-arloko funtzionarioen ildo luzearen oinordekoa zen Yusuf Diya. Haren aita, al-Sayyid Muhammad Ali al-Khalidi, Jerusalemgo *Xaria* auzitegiko *kadi* elkartu eta idazkaritza-buru gisa aritu zen berrogeita hamar bat urtetan. Baina gaztetan Yusuf Diyak bestelako bidea hautatu zuen beretzat. Heziketa islamiar tradizionalaren oinarriak bereganatuta, hemezortzi urterekin utzi zuen Palestina —aitaren onespenez gabe, diotenez— Maltako *British Church Mission Society* ikastetxean bi urte emateko. Handik Istanbulgo Medikuntza Eskola Inperialera joan zen ikastera, eta ondoren misiolari protestante amerikarrek sortu berri zuten hiriko *Robert College*-n eman zuen izena. 1860ko hamarkadan, bost urtez, Yusuf Diya Mendebaldeko estiloko hezkuntza modernoa eskaintzen zuten eskualdeko lehen erakunde batzuetan aritu zen, ingelesa, frantsesa eta alemana ikasten beste gai askoren artean. XIX. mendearen erdialdean ezohiko ibilbidea zen erlijio musulmaneko jakintsu familia bateko gazte batentzat.

Hain prestakuntza zabala lortuta, Yusuf Diyak hainbat eginkizun bete zituen otomandar gobernuko funtzionario gisa —itzultzaile Atzerri Ministerioan; kontsul Errusian, Itsaso Beltzeko Poti portuan; gobernadore Kurdistan, Libano, Palestina eta Siriako barrutietan; eta Jerusalemgo alkate ia hamarkada batez— eta irakasle gisa Vienako Royal-Imperial Unibertsitatean hainbat tartetan. Jerusalemgo diputatu hautatu zuten 1876an Inperioaren konstituzio berriarekin ezarri zen Otomandar Legebiltzar iraupen laburrekoan, non Abdul Hamid sultanaren etsai bihurtu zen, parlamentuko eskumenak bultzatzen zituelako botere exekutiboaren gainetik⁶.

Familiaren tradizioari jarraituz, eta zuen hezkuntza islamiar eta Mendebaldekoarekin bat etorriz, al-Khalidi jakintsu aitortua ere bilakatu zen. Khalidi Bibliotekan haren liburu asko daude, frantsesez, alemanez eta ingelesez; baita Europako zein Ekialde Hurbileko aditu ezagunekiko gutunak ere. Gainera, liburutegian bildutako austriar, frantses eta britainiar egunkari zaharrek erakusten dute Yusuf Diyak aldizka irakurtzen zuela atzerriko prentsa. Frogatuta dago material horiek jasotzen zituela Istanbulgo Austriako posta-bulegoaren bitartez, non saihets baitzitezkeen otomandar zentsura-lege drakoniarrak⁷.



Yusuf Diya al-Din Pasha al-Khalidi.

Haren askotariko irakurketen ondorioz, baita Vienan eta Europako beste herrialde batzuetan izandako egonaldien eta misiolari kristauekin izandako harremanen ondorioz ere, Yusuf Diya guztiz jabetu zen Mendebaldean antisemitismoak zuen hedaduraz.

Era berean, sekulako ezagutza lortu zuen sionismoaren jatorri intelektualaz, bereziki Europa kristauaren antisemitismo latzari emandako erantzunaren izaeraz. Zalantzarik gabe ondo ezagutzen zuen *Der Judenstaat* lana, Theodor Herzl kazetari austriarrak 1896an argitaratua, eta 1897an zein 1898an Basilean, Suitzan, izandako lehen bi biltzar sionisten jakitun zen⁸ (Izan ere, argi dirudi Yusuf Diyak Herzlen berri izan zuela bere Vienako egonaldian). Buruzagi eta joera sionista ezberdinen eztabaidak eta iritziak ezagutzen zituen; besteak beste, Herzlek juduen estatu baten aldarrikapen esplizitua, immigrazioa kontrolatzeko «eskubide burujabea» barne. Horrez gain, Jerusalemgo alkate zelarrik, lehen urteetako jarduera proto-

sionistek bertako biztanleekin eragindako talkak ezagutu zituen, 1870eko hamarkadaren amaieran eta 1880ko hamarkadaren hasieran Europako kolono judu goiztiarrak iritsi zirenean.

Hazten ari zen mugimenduaren sortzaile eta buruzagi aitortua izan arren, behin bakarrik egon zen Herzl Palestinan, 1898an, Gilen II.a kaiserraren bisitarekin bat egiteko programatu zuen bidaiari, hain zuzen ere. Ordurako hasia zen Palestinaren kolonizazioaren inguruko zenbait gairi buruz hausnartzen. 1895ean honela idatzi zuen bere egunkarian:

Emeki desjabetu behar ditugu guri esleitutako finken jabetza pribatuak. Saiatuko gara dirurik gabeko biztanleriak muga zeharka dezan, bideko herrialdeetan lana lortuz haien zati, gure herrialdean lana ukatzen zaien bitartean. Jabeak gure alde jarriko dira. Desjabetze-prozesua zein behartsuen urrunketa, biak modu zuhur eta neurritsuan egin behar dira⁹.

Yusuf Diya kontzienteago izango zen, Palestinako bere herrikide gehienak baino, mugimendu sionista jaioberriaren anbizioaz, baita haren indarrak, baliabideez eta erakargarritasunaz ere. Ondo zekien ez zegoela modurik bateratzeko sionismoak Palestinaren inguruan zituen eskabideak eta bertako biztanleen eskubide eta ongizatea, sionismoak juduen estatua eta burujabetza helburu esplizitu gisa aldarrikatzen baitzituen. Ziur asko arrazoi horientatik Yusuf Diyak, 1899ko martxoaren lehen, zazpi orrialdeko gutun aitzindari bat bidali zion Zadoc Kahn frantziar errabino nagusiari, sionismo modernoaren sortzaileari helaraz ziezaion.

Gutunaren hasieran Yusuf Diyak Herzlekiko zuen miresmena adierazten zuen, estimatzen baitzuen «gizon, talentu handiko idazle eta benetako judu abertzale izanik»; baita judaismoarekiko eta juduekiko zuen begirunea ere. Juduak «gure lehengusuak» deitzen ditu, erreferentzia eginez Abraham patriarkari, zeina hala juduek nola musulmanek arbaso komun gisa oharatzen baitute¹⁰. Sionismoaren motibazioak ulertzen zituen, juduek Europan jasaten zuten jazarpena deitoratzen zuen bezalaxe. Horren harira, idatzi zuen berez sionismoa «naturala, ederra eta justua» zela, beste hau gehituz: «Nork eztabaidatu litzake Palestinako juduen eskubideak? Ene Jainkoa, historikoki zuen herria da!».

Zenbaitetan esaldi hori zitatzen da, gutunaren gainerakoetatik isolatuta, Palestinako programa sionista osoaren inguruan Yusuf Diyaren onarpen sutua irudikatzeke. Jerusalemgo alkate eta diputatu ohiak, ordea, ohartarazi nahi zuen Palestinan estatu judu burujabe baten proiektu sionista gauzatzearen

ondorioz aurreikusten zituen arriskuez. Ideia sionistek liskarrak sortuko zituztela bertako kristauen, musulmanen eta juduen artean. Eta arriskuan jarriko zituzten juduek otomandar lurretan beti izan zituzten estatusa eta segurtasuna. Gero, bere helburu nagusiari helduz, Yusuf Diyak modu zuhurrean esan zuen sionismoaren merituak edozein direla ere, «zirkunstantzien indar bortitza hartu behar dela kontuan». Horien artean garrantzitsuena hau zen: «Palestina Otomandar Inperioaren osagaia da, eta funtsezkoagoa dena, bertan beste batzuk bizi dira». Palestinak bazuen jadanik bertako populazio bat, ordezkatua izatea inoiz onartuko ez zuena. Yusuf Diyak hori adierazten zuen «gertakarien erabateko ezagutzarekin», baieztatuz sionismoarentzat «erokeria hutsa» zela Palestinaz jabetzeko plana. «Ezin justuago eta ekitatiboagoa» litzateke «zorigaiztoko nazio juduarentzat» aterpea beste nonbait aurkitzea. Baina, erregu zintzo bat eginez, honela amaitzen zuen: «Jainkoaren izenean, utzi Palestina bakean».

Herzlen erantzuna azkar iritsi zitzaion Yusuf Diyari, martxoaren 19an. Ziurrenik mugimendu sionistaren sortzaile batek Palestinarako bere enbrioi-planen aurkako objektio sendo bati emandako lehen erantzuna izan zen gutun hura. Bertan Herzlek ezarri zuen ohiko bihurtuko zen patroï errepikakor bat ezdeustzat hartuta bertako populazioaren interesak eta, batzuetan, populazioaren existentzia bera ere. Buruzagi sionistak alde batera utzi zuen gutunaren oinarritzko argudioa: Palestinan bazela biztanleria, ordezkatua izatea onartuko ez zuena. Herzlek herrialdea behin bisitatu bazuen ere, lehen sionista europar gehienek bezala, ez zituen bertako biztanleak apenas ezagutzen, eta oso harreman gutxi zuen bertakoekin. Era berean ez zion heldu Al-Khalidik, oinarri sendoz, adierazitako kezkar, alegia, programa sionistak arriskua sortuko lukeela Ekialde Hurbil osoan ondo finkatutako komunitate judu handientzat.

Sionismoak azken finean Palestina juduen mende jarri nahi zuela ezkatutaz, Herzlek honako hau erabili zuen arrazoibidetzat, denboran zehar eta leku guztietan kolonialistentzat frogarria izan den justifikazioa, mugimendu sionistaren oinarritzko argudio bihurtuta: juduen immigrazioak mesede egingo lioke Palestinako bertako jendeari. «Haien ongizatea, haien aberastasun indibiduala, handitu egingo dugu gurea ekartzean». *Der Judenstaaten* erabilia zuen hizkuntzari oihartzuna eginez, Herzlek gaineratu zuen: «Judu batzuei immigrazioa ahalbidetuz gero, haien adimena, finantza-gaitasuna eta enpresa-bitartekoak herrialdera ekar ditzaten, inork ezin du zalantzan jarri herrialde osoaren ongizateak amaiera zorionsua izango duenik»¹¹.

1

Constantinople le 1^{er} Mars 1899,
Bira, & Hedivial hotel,

Monsieur

Sachant combien le sort de Vos
coreligionnaires en Arabie Vous touche au cœur, je
prends la liberté de Vous adresser les lignes suivantes :

Je me flatte de penser que je n'ai pas
besoin de parler de mes sentiments envers Votre peuple.
Tous ceux qui me connaissent savent bien, que je ne fais
aucune distinction entre juifs, chrétiens et musulmans.
Je m'inspire toujours de la sublime parole de Votre
Prophète Mohammed, n'est-ce pas que nous avons un père
commun à nous tous? N'est-ce pas le même Dieu qui
nous a créés, tous? Or ce qui concerne les israélites,
je prends cette parole au sens de la lettre, car, en
dehors de ce que je les estime pour leurs hautes
qualités morales et intellectuelles, je les considère
vraiment comme parents à nous tous autres arabes
pour nous ils sont des cousins: nous avons vraiment
le même père, Abraham, dont nous descendons
également. Il existe beaucoup d'affinités entre
les deux races, nous avons presque la même langue.

CENTRAL ZIONIST ARCHIVES

Yusuf Diyak Theodore Herzli: Palestinan «beste batzuk bizi dira» eta ez dute erraz onartuko beren lekualdatzea.

Are argigarriagoa da Yusuf Diyak planteatu ere egin ez zuen gogoeta bati heltzen diola gutunak: «Beste zailtasun bat ikusten duzu, jaun goren horrek, juduak ez diren biztanleak egotea Palestinan. Baina nori bururatuko litzaioke haiek kanporatzea?»¹². Al-Khalidik egin ez zion galderari erantzuten dion baieztapen horretan Herzlek erreferentzia egiten dio bere egunkarian jasotako nahiari: herrialdeko biztanle pobreak muga «diskretuki» gurutza

dezaten animatzea¹³. Aipamen lazgarri horretan argi geratzen da Herzl jabetu zela Palestinako jatorrizko biztanleria «desagertzearen» garrantziaz sionismoak arrakasta izan zezan. Gainera, 1901ean Judu-Otomandar Lurralde Konpainiarentzat idazten lagundu zuen gutunak jasotzen du Palestinako biztanleak «Otomandar Inperioko beste probintzia eta lurralde batzuetara» eramateko printzipio bera¹⁴. Herzlek bere idatzietan azpimarratu bazuen ere bere proiektua «tolerantziarik gorenean» oinarritzen zela, guztientzako esku-bide guztiak jasota¹⁵, baina gainontzekoek beste leku batera alde egin ondoren gera litezkeen gutxiengoekiko tolerantzia zen benetan adierazi nahi zuena.

Herzlek gutxietsi egin zuen bere solaskidea. Al-Khalidiren gutunean argi dago primeran ulertu zuela Palestinaren auzia ez zela «judu kopuru» mugatu baten immigrazioa, lurralde osoa estatu judu bihurtzea baizik. Herzlek emandako erantzuna ikusita, Yusuf Diyak bi ondorioetako bat baino ezin zuen atera. Edo buruzagi sionistak engainatu nahi zuen mugimendu sionistaren benetako helburuak ezkatutuz, edo Herzlentzat Yusuf Diya eta Palestinako arabiarrek ez ziren serio hartzeko modukoak.

Aitzitik, hemeretzigarren mendeko europarrentzat hain ohikoa zen autosegurtasun harroputzarekin, Herzlek pizgarri burugabe bat eskaintzen zuen: arrotzek haien lurrak kolonizatzeak, eta azken finean usurpatzeak, herrialdeko jendeari mesede egingo zion. Badirudi Herzlen pentsamenduari eta Yusuf Diyari emandako erantzunaren oinarrian ustebide bat dagoela: arabiarrek, mugimendu sionistak Palestinarako benetan zituen asmoak jakin gabe, lehenago edo beranduago erosiak edo engainatuak izan zitezkeela. Palestinako populazio arabiarren adimenarekiko destainazko jarrera hori —esku-bideekikoa aipatu gabe— errepikatuko zuten behin eta berriro buruzagi sionistek, britainiarrek, europarrek eta amerikarrek ondorengo hamarkadetan, gaur egunera arte. Herzlek fundatutako mugimenduak azkenean sortu zuen estatu juduari dagokionez, Yusuf Diyak aurreikusten zuena bete zuen: herri bakarrarentzat baino ez zen tokirik, herri juduarentzat; besteei «alde egitera animatzea» edo, onenean, toleratuak izatea zegokien.

Yusuf Diyaren gutuna eta Herzlen erantzuna oso ezagunak dira garai hartako historialarientzat, baina badirudi gehienek ez dutela arreta nahikoaz aztertu Palestinako pertsonaia nagusi baten eta mugimendu sionistaren sortzaile baten artean seguruen lehen truke esanguratsua izan zena. Ez dute guztiz aintzat hartu Herzlen arrazoibidea, zeinak nahiko argi azaltzen baitzuen

Palestinako gatazka luzearen funts koloniala. Al-Khalidiren argudioak ere ez dituzte aintzat hartu, nahiz eta 1899az geroztik ia osorik baieztatu diren.

Lehen Mundu Gerraren ostean, Palestinako bertako gizartearen desegitea jarri zen martxan Europako kolono juduen immigrazio handiaren ondorioz, Britainiar Mandatu sortu berriko agintariek bultzatuta, haiek lagundu baitzieten kolonoei paraestatu sionista baten egitura autonomoa eraikitzen. Gainera, juduek kontrolatutako ekonomiaren sektore berezitu bat sortu zen juduen jabegoko enpresetan arabiar eskulana baztertzearen bitartez —hebrear lana, *Avoda ivrit* lelopean—; eta atzerriko kapital-funts benetan masiboaren injekzioarekin¹⁶. 1930eko hamarkadaren erdialderako, juduak oraindik biztanleriaren gutxiengoa ziren arren, sektore nagusiki autonomo hori handiagoa zen arabiarren ekonomiaren zatia baino.

Bertako biztanleria are gehiago murriztu zen britainiar agintearen aurka 1936-1939 tartean gertatutako Palestinako Arabiar Matxinada Handiaren aurkako errepresioaren ondorioz, zeinean gizonezko helduen ehuneko hamarra hil, zauritu, espetxeratu edo erbesteratu baitzuten¹⁷, eta britainiarrek ehun mila bat soldadu eta hegazkinak erabili baitzituzten palestinarren erresistentzia menderatzeko. Bitartean, Alemanian nazien erregimenaren jazarpenaren ondorioz, juduen immigrazio-olatu izugarriak igoarazi zuen Palestinako biztanleria judua, guztizkoaren % 18 izatetik 1932an, % 31 gainditzera helduz 1939an. Horrek ekarri zituen 1948ko Palestinako garbiketa etnikorako beharrezkoak izan ziren masa kritiko demografikoa eta kide militarrek. Orduan osatu zen sionismoaren garaipen militar eta politikoa, herrialdeko biztanleria arabiarraren erdia baino gehiago kanporatu zutenean, milizia sionistek lehenik, eta Israelgo armadak gero.

Bertako populazioaren kontura egindako muturreko ingeniari-tza sozial hori mugimendu kolonial-okupatzaile guztien ohiko bidea da. Palestinan ezinbesteko aurrebaldintza izan zen hori herrialde erabat arabiar bat estatu nagusiki judu bihurtzeko. Liburu honetan argudiatuko den bezalaxe, Palestinako historia modernoa ondoen ulertzeko gakoa ondokoa da: bertako populazioaren aurka egindako gerra kolonial bat da, hainbat indarrek aurrera eramanez, helburu honekin: bertakoak behartzea, beren nahiaren aurka, jaioterria beste herri baten esku uztera.

Gerra honek beste kanpaina kolonial batzuen ohiko ezaugarri asko partekatu arren, oso ezaugarri zehatzak ere baditu, mugimendu sionistaren eskutik eta haren izenean piztutako borroka bat izan baitzen, eta mugimendu sionista, lehen eta orain, oso proiektu kolonial berezia da. Kanpoko potentzien

laguntza masiboarekin bideratutako gatazka kolonial hau ulertzea are zailago egiten duen faktorea zera da, denborarekin bi entitate nazional berriren eta bi herriren arteko konfrontazio nazional bihurtu zela gatazka. Berezitasun hori azpimarratu eta anplifikatzen da Israelgo lurralde historikoaren lotura biblikoak juduei, eta kristau askori ere, eragiten dien oihartzun sakona dela-eta. Oihartzun hori, sionismo politiko modernoak trebezia bilbatua, gatazkaren parte integral bihurtu da. Horrela, XIX. mendearen amaieran mugimendu kolonial-nazional bat zena, Bibliako berniz batez estalita, oso erakargarria izan zen Britainia Handiko eta Estatu Batuetako protestante biblia-irakurleentzat, erreparatu gabe sionismoaren berritasunari eta izaera kolonialari: nola «kolonizatuko» zuten juduek beren erlijioaren hasierako lurraldea?

Itsutasun hori dela-eta, gatazka aurkezten da, kasurik onenean, liskar nazional soil baten gisa, tragikoa izanda ere, lurralde berean eskubideak dituzten bi herriren artekoa. Kasurik okerrenean, berriz, azalpenaren funtsa da arabiarrek eta musulmanek gorroto fanatiko eta amorratua dutela herri juduarekiko, hauek Jainkoak emandako betiereko aberrirako duten eskubide ukalezina baino aldarrikatzen ez dutenean. Izan ere, ez dago arrazoirik mende bat baino luzeago iraun duen Palestinako gatazka *bietara* ez ulertzeko, gatazka kolonial zein nazional gisa. Baina hemen izaera koloniala da azpimarratu nahi duguna, zeren alderdi hori zentrala bezain gutxietsia izan baita, beste kanpaina kolonialetako ezaugarriak nonahi agertu arren Palestinaren historia modernoan.

Izan ere, europar kolonizatzaileek Ameriketan, Afrikan, Asian edo Australian (edo Irlandan) bertako herriak ordezkatu edo menderatu nahi izan dituztenean, beti hitz gutxiesgarrietan deskribatu dituzte. Horrez gain, aldarrikatu izan dute ezarritako agintearen ondorioz jatorrizko biztanleriaren egoera hobetuko dutela; proiektu kolonialen helburuen izaera «zibilizatzaileak» eta «progresistak» baliatuz helburuak lortzeko herri indigenen aurka egiten diren izugarrikeriak justifikatzeko. Administrazioile frantsesen erretorika Afrikako iparraldean, edo erregeorde britainiarrena Indian, aipatu besterik ez dago. Lord Curzonek zera esan zuen Britainiar Raj-i buruz: «Sentitzea milioika horien artean nonbait justizia edo zoriontasun edo oparotasun apur bat lortu duzula, halako gizentasun edo duintasun moral bat, abertzaletasunaren iturburu bat, pizkunde intelektualaren egunsenti bat, edo betebeharraren esnatze bat lehen existitzen ez zen lekuan —nahikoa da hori, horixe da ingelesentzat justifikazioa Indian—»¹⁸. «Lehen existitzen ez zen lekuan» hitzak errepikatzea merezi du. Curzonentzat eta bere klase

kolonialeko beste batzuentzat, bertakoek ez zekiten zer zen berentzat onena, eta ezin zuten hori lortu beren kabuz: «Ezin duzue gu gabe egin», esan zuen Curzonek beste mintzaldi batean¹⁹.

Mende bat baino gehiagotan kolonizataileek beste herri indigenekin erabili duten hizkuntza berbera erabili da palestinarrak irudikatzeke. Theodor Herzlen eta beste buruzagi sionisten destainazko erretorika ez zen aldutzen haien Europako kideenetik. Estatu judua, idatzi zuen Herzlek, «Europako defentsa-harresiaren zati bat izango da Asian, zibilizazioaren gotorleku bat barbariaren aurka»²⁰. Lengoaia hori Ipar Amerikako mendebaldeko konkistatzeko erabilitakoaren antzekoa zen; hango kolonizazioa XIX. mendean amaitu zelarik kontinenteko bertako biztanleria guztia desagerrarazita edo menderatuta. Ipar Amerikan bezala, Palestinaren kolonizazioa —Hegoafrikarena, Australiarena, Aljeriarena eta Afrikako ekialdeko hainbat zatirena bezala— europar kolonia okupatzaile zuri bat bideratzera zuzenduta zegoen. Palestinarekiko Curzonek erabiltzen zuen erretorika eta Herzlen gutunetan agertzen den tonua errepikatzen dira gaur egun ere Palestinari buruzko diskurtso askotan, Estatu Batuetan, Europan eta Israelen.

Logika kolonial horren ildotik, bibliografia zabala dago Europako kolonizazio sionistaren etorreraren aurretik Palestina antzua, hutsa eta atzeratua zela frogatzeari emana. Palestina historikoa erdeinuzko adierazpen kontaezinetan agertzen da Mendebaldeko herri-kulturaren, baita artikuluko akademiko kaskarretan ere. Kaskarrak zeren, zientifikotzat eta akademikotzat jotzen diren arren, akats historikoz, faltsukeriaz eta hainbatetan erabateko fanatismoz josita baitaude. Testu horien arabera, herrialdean, gehien jota, sustrairik gabeko beduino nomaden populazio txiki bat bizi zen, nortasuna finkatu gabekoak eta, funtsean ibiltariak izanik, pasatzen ziren lurraldearekiko atxikimendurik gabekoak.

Iritzi horren ondorioa da etorkin judu berrien lana eta bultzada, eta ez beste ezer, izan direla herrialdea gaur egun omen den lorategi bikaina bihurtu zutenak, eta horiek bakarrik zutela identifikazioa eta maitasuna lurraldearekiko, baita (Jainkoak emandako) eskubidea ere. Jarrera hori laburbiltzen da «Herririk gabeko lurra, lurrik gabeko herriarentzat» leloan, Palestina judu baten aldeko kristauek zein Israel Zangwill bezalako lehen sionistek erabilia²¹. Palestina *terra nullius* zen han finkatzera zetozenentzat, bertan bizi zirenak anonimoak eta amorfoak ziren bitartean. Hortaz, Palestinako arabiarak, orduan herrialdeko biztanleen % 95 gutxi gorabehera, «biztanleria ez-judu» gisa aipatzen zituen Herzlek Yusuf Diyari bidalitako gutunean.

Funtsezko ikuspuntua zen palestinarrak ez zirela existitzen, edo hutsaren hurrengoa zirela, edo ez zutela merezi bizitzea axolagabe betean zuten herrialdean. Ez baziren existitzen, orduan mugimendu sionistaren planen aurka palestinarrak egindako objektzio ondo oinarrituak ere bazter zitezkeen. Herzlek Yusuf Diya al-Khalidiren gutuna gutxietsi zuen moduan, Palestinaren egoera bideratzeko geroko eskema gehienetan ere halako joera agertzen da. Britainiar kabinete batek egindako 1917ko Balfour Adierazpenean, non Britainia Handiak juduen jaioterri nazional bat sortzeko konpromisoa jasotzen baitzen, palestinarrak ez ziren inon aipatzen, garai hartan herrialdeko biztanleriaren gehiengo handia izanda ere, eta adierazpenak hurrengo menderako Palestinarako norabidea ezarri zuen arren.

Palestinarrak besterik gabe ez direla existitzen, edo are okerrago, Israelen aurka ari direnen asmakizun gaiztoa direla, sustatuko ideia hori babestu egin zuten hainbat liburu iruzurtik, Joan Peters-en *From Time Immemorial* izenekoak esaterako —gaur egun akademikoek guztiz meriturik gabekotzat jotzen duten arren (1984an argitaratu zenean, berriz, harrera sutsua izan zuen, eta oraindik argitaratzen da, eta modu etsigarrian saldu)—²². Batera sasi-hezitzaile eta herrikoi den bibliografia horren oinarri nagusia bi iturri dira: Europako bidaiarien zein etorkin sionisten kontakizunak batetik, eta Britainiar Mandatuarenak bestetik. Sortzaileek, askotan, ez dakite ezer bertako gizarteaz eta historiaz, eta horienganako mespretxua adierazten dute, edo okerrago dena, xede ezkutu bat dute bertakoen ikusezintasunean edo desagertzean datzana. Palestinako gizartetik sortutako iturriak oso gutxitan erabiltzen dituztenez gero, irudikapen horiek funtsean kanpokoen ikuspuntua errepikatzeko dute, ezjakintasuna eta alborapena, Europako harrokeriaz tindatuta²³.

Mezu hori oso hedatuta dago Israelgo eta Estatu Batuetako herri-kulturaren, baita bizitza politiko eta publikoan ere²⁴. Salmenta handiko liburuen bidez aplikatu da gainera; besteak beste, Leon Urisen *Exodus* eleberrian eta bertatik eratorrirako film Oscar saridunean, zeintzuek eragin sakona izan baitute belaunaldi oso batean, eta aurreiritziak baieztatzeko eta sakontzeko balio izan baitute²⁵. Politikari ezagunek ukatu dute esplizituki palestinaren existentzia. Adibidez, Newt Gingrich Ordezkarieraren Ganberako presidente ohiak: «Uste dut Palestinan herri bat asmatu dugula, izatez arabiarren direnean». 2015eko martxoan Palestinara egindako bidaia batetik itzultzean, Mike Huckabee Arkansasko gobernadoreak esan zuen: «Errealitatean ez dago palestinar dei daitekeen inor»²⁶. Neurri batean edo bestean, Harry Trumanek geroztik, AEBko administrazio guztietan Palestinari buruzko politikan

aritutako pertsonak pentsatu izan dute palestinarrak direla, existitzekotan, israeldarrak baino maila beherakoak.

Esanguratsua da sionismoaren hasierako apostolu asko eta asko harro egon zirela haien proiektuaren izaera kolonialaz. Zeev Jabotinsky buruzagi sionista errebisionista entzutetsua, Israelen 1977tik Menachem Begin, Yitzhak Shamir, Ariel Sharon, Ehud Olmert eta Benjamin Netanyahu lehen ministroekin nagusi izan den joera politikoaren aitabitxi, bereziki argia zen alde horretatik. Jabotinskyk honako hau idatzi zuen 1923an: «Munduko jatorrizko biztanle guztiek aurre egiten diete kolonizatzaileei, betiere kolonizatuak izateko arriskutik libre izateko itxaropen txikiena baldin badute. Horixe da Palestinan arabiarrek egiten dutena, eta egiten jarraituko dutena, itxaropen izpi bakar bat geratzen zaien bitartean pentsatzeko gai izango direla eragozteko “Palestina” “Israelgo lurralde” bihurtzea. Zintzotasun hori arraroa zen beste buruzagi sionista batzuen artean, zeintzuek, Herzlek bezala, zituzten helburuen garbitasun errugabea aldarrikatzen baitzuten, iruzurra eginez Mendebaldeko entzuleei, eta agian beren buruei ere, nola eta Palestinako biztanle arabiarrei buruz zituzten asmo onberei buruzko maitagarrien ipuinekin».

Gehienak ez bezala Jabotinsky eta bere jarraitzaileak izan ziren aski zintzoak publikoki eta argiki aitortzen zetozen errealitate gogorak, saihetsezinak direnak gizarte kolonial bat ezartzean bertako biztanleria duen tokian. Zehatz-mehatz onartu zuen programa sionista ezartzeko beharrezkoa izango zela indar masiboaren etengabeko erabilera arabiar gehiengoaren aurka: baionetazko «burdin horma» deitu zion, eta ezinbestekotzat zuen arrakastarako. Jabotinskyk zioenez, «Kolonizazio sionista... bakarrik garatu eta burutu daiteke bertako biztanleengandik independentea den botere baten babespean —bertako biztanleek urratu ezin duten burdin horma baten atzean—»²⁷. Kolonialismoaren garaia puri-purian zen oraindik, mendebaldarrek bertako gizarteei halako gauzak egitea normalizatu eta «aurrerabide» gisa deskribatu ohi zirenean.

Hasierako sionistek sortutako erakunde sozial eta ekonomikoak, proiektu sionistaren arrakastarako funtsezkoak, kolonialtzat jo izan ziren guztien aldetik, diseinuan zein azalpenetan, inolako zalantzarik gabe. Erakunde horien artean garrantzitsuena Juduen Kolonizazio Elkarteak (*Jewish Colonization Association*, JCA) izan zen (1924an Palestinako Juduen Kolonizazio Elkarteak izena hartuko zuen). Erakunde hori Maurice de Hirsch baroi filantropo judu alemaniarrek sortu zuen hasieran, eta geroago bat egingo zuen Edmond de

Rothschild lord britainiar finantzariak sortutako pareko erakundearekin. JCAk finantza-laguntza masiboa eman zuen, zeinaren bidez posible izan baitziren lursail zabalen erosketak, baita dirulaguntzak bideratzea Palestinako hasierako kolonia sionista gehienek iraun eta aurrera egin zezaten ere, Britainiar Mandatuaren garaian zein aurretik.

Ohikoa denez, Bigarren Mundu Gerraren osteko deskolonizazioaren garaian, kolonialismoari zerion kiratsa zela-eta, sionismoaren eta Israelen jatorri zein jarduera kolonialak zuritu eta modu egokian ahaztu ziren, Israelen zein Mendebaldean. Izan ere, sionismoa —bi hamarkadaz Britainia Handiko kolonialismoaren alabaorde kutuna izan zena— mugimendu anticolonial gisa agertu zen berrasmatuta. Goitik beherako birmoldaketa honetarako abagunea Britainia Handiaren aurka abiarazitako sabotaje- eta terrorismo-kanpaina bat izan zen, 1939ko Liburu Zuriarekin juduen immigrazioa nabarmen mugatu ostean gertatua, Bigarren Mundu Gerraren bezperan. Ordurainoko (1930eko hamarkadaren amaieran Britainia Handiak armatu eta trebatu zituen kolono juduak herrialdera sartzen utzi aurretik palestinarren aurka borrokatzen laguntzeko) aliatuen arteko liskar horrek bultzatu zuen mugimendu sionista anticoloniala zela dioen ideia bitxia.

Hala ere, ezin zen saihestu errealitate bat: sionismoak hasieratik eskatu ziola Britainia Handiko Inperioari babesa, eta, arrakastaz ezarri bazen Palestinan, izan zela, hain zuzen ere, inperialismo britainiarraren etengabeko ahaleginei esker. Ezin bestela. Izan ere, Jabotinskyk azpimarratu zuen bezala, britainiarrek bakarrik zituzten bitarteko nahikoak palestinarren erresistentzia zapaldu eta herrialdea eskuratzeko beharrezkoa zen gerra koloniala egin ahal izateko. Gerrak jarraitu du geroztik, nola agerian hala ezkutuan, baina betiere egungo potentzia nagusien onarpen isil edo agerikoarekin, eta askotan parte-hartze zuzenarekin eta haiek menderatzen zituzten nazioarteko erakundeen oniritziarekin —Nazioen Liga edo Nazio Batuen Erakundea.

XIX. mendean Europatik kanpoko lurralde batean, garaiko Mendebaldeko botere inperial handienek lagunduta, sortutako abentura europar kolonial klasikoa oso gutxitan azaltzen da, gaur egun, halako termino argitan. Horrela, Jerusalem, Zisjordania eta Siriako Golango gain okupatuak kolonizatzeke israeldarren ahaleginez gain, sionismoaren ekimen osoa jatorritik duen izaera kolonialaren ikuspuntutik aztertzen dutenak laidotuak izaten dira sarri. Askok ezin dute onartu honako ideia honetan berez dagoen kontraesana: zalantzarik gabe sionismoak Israelen entitate nazionala sortzea arrakastaz lortu zuen arren, haren sustraietan proiektu kolonial bat badago (beste herrialde

moderno batzuetan bezalaxe: Estatu Batuak, Kanada, Australia eta Zeelanda Berria). Era berean, ezin dute onartu ez zuela halakorik lortuko potentzia inperial handien babesa, Britainia Handiarena eta geroago Estatu Batuena, izan ez balu. Baina sionismoa izan zen, eta hala da, mugimendu nazionala eta kolonial-okupatzailea, biak batera eta aldi berean.

Palestinako historiari buruzko azterketa integral bat idatzi beharrean, Palestina menderatzeko borrokan gertatutako sei inflexio-puntutan jarri dut arreta. Palestinaren patua erabaki zuen 1917ko Balfour Adierazpenetik, Israelek 2000ko hamarkadaren hasierako Gazako Zerrendako setio eta Gazako biztanleriaren aurkako aldizkako gerretara, sei gertaera horiek nabarmentzen dute Palestinaren aurkako ehun urteko gerraren izaera koloniala, baita hura burutzeko kanpoko botereek izan duten ezinbesteko eginkizuna ere²⁸. Gerra bizi izan zuten palestinarren esperientzien bidez azaldu nahi izan dut, partzialki bada ere, kontakizun hau, haien arteko batzuk nire familiako kideak, deskribatutako pasarte batzuetan presente egon zirenak. Lekuko izan nintzen gertaeretan neure oroitzapenak gehitu ditut, baita nire familiaren eta beste batzuen materialak zein lehen pertsonan idatzitako hainbat narrazio ere. Nire xede nagusia zera izan da, gatazka hau azaltzeko gailendu diren ikuspegi gehienetatik oso ezberdin den ikuspuntua ematea.

Hainbat liburu eta artikulua idatzi ditut Palestinako historiaren alderdi ezberdinei buruz, erregistro akademiko hutsean²⁹. Liburu honen oinarrian ere bada ikerketan oinarritutako lan akademikoa, baina badu lehen pertsonari dagokion dimentsioa ere, akademiako historiatik kanpo egon ohi dena. Palestinako gertaeretan nire familiako kideak, eta ni neu, urteetan zehar lekuko edo parte-hartzaile gisa aritu bagara ere, gure bizipenak ez dira apartak, gure klase eta estatusagatik izan ditugun abantailak gorabehera. Antzeko kontakizun askotara jo liteke, oraindik kontaktu gabeko pasarte asko daudelako herritar xumeetatik eta Palestinako gizarteko beste sektore batzuetatik. Hala ere, aukeratutako hurbilpen honek berez dituen tentsioak gorabehera, uste dut laguntzen duela argitzen Palestinaren historiari buruzko literatura ia guztian falta den ikuspegi bat.

Gehitu behar dut liburu hau ez datorrela bat Palestinako historiako azken ehun urteetako «ikuskeraren negar-eragile»arekin —Salo Baron historialari handiak egiten dion kritikarekin bat etorritik, XIX. mendeko idazki historiko juduek zuten joerari erreferentzia egitean—³⁰. Beren zapaltzaileekin bat egiten dutenek palestinarrei leporatu diete beren biktimizazioarekin atsegin

hartzea. Egia da, ordea, gerra kolonialei aurre egin dieten herri guztiek bezala, palestinarrek ere aurre egin behar izan dietela beldurgarriak eta batzuetan gaindiezinak ziren arriskuei. Egia da, halaber, porrotak pairatu dituztela behin eta berriro, eta sarritan egon direla banatuta eta gaizki gidatuta. Halakoek ez dute esan nahi palestinarrek, batzuetan, arrisku horiei arrakastaz desafiatu ezin izan zietenik, edo, beste batzuetan, ezin izan zutela aukera hoberik hautatu³¹. Baina ezin ditugu alde batera utzi haien aurka erabilitako indar internazional eta inperial ikaragarriak, pairatu duten eskala askotan ezkutatu bada ere, eta horien aurrean palestinarrek erresilientzia nabarmena erakutsi dutela. Nire itxaropena da liburu honek erresilientzia hori islatuko duela, eta lagunduko duela berreskuratzen, neurri batean baino ez bada ere, orain arte Palestina historiko osoa eta haren inguruko kontakizuna kontrolatzen dituztenek historiatik ezabatu dutena.

